

Manuel Rivasen lana itzultzen

JON KORTAZAR

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Aitortuko dut: ezuste handia izan nuen Manuel Rivasek deitu zidanean bere lana itzultzeko eskatuz. Ez nuen inondik inora itxaroten horrelako deirik, horrelako eskaririk. *A desaparición da neve* (2009) poema liburua argitaratu nahi zuen, baina ez edonola: Arestik Meaberen lanarekin egin zuen bezala, Espainiako lau hizkuntzatan agertu nahi zuen, eta niri euskarazko aldaketa egiteko aukera eskaini zidan. Ez naiz itzultzailea, ezta poeta ere. Literaturaren eremuan, eta esan dezadan behar den zuhurtziarekin, irakurlea naiz, eta batzuetan ez oso eskasa. Baina hori ez da meritu handia lan eder eta aberatsa izan litekeena itzultzen hasteko orduan.

Banuen beste bertute bat, eskainitako lana onartzera bultzatu ninduen: adiskidetasuna. Adiskideek diote ez naizela hain adiskide txarra, eta nigan fidatzerik badagoela. Eta Manuel Rivas aspaldi dut nire adiskide kutunen artean, bera eta beraren emazte Isabel, eta, zalantzarik ez, Juan Kruz Igerabide poeta handia eta itzultzaile trebea. Duda-muda eta beldurra izanez gero, beti izango nuen laguntza. Itsasoratu baino lehen, laguntzaile ona hartu nuen, badaezpada ere.

Lehen poemak

2008ko irailaren 29an heldu ziren lehen poemak, posta elektroniko bidez. «Urxente Rivas» jarri zuen egileak, gaia aipatzen den tokian. Eta lehen poema zekarren mezu hark: *Desaparición (primeiro)*. Diskoaren lehen kanta. Itsasoratzen ari nintzen itzulpenen itsasoan.

Gaur balitz bezala gogoan ditut itzulpen lanaren lehen memento haiek. Begien aurrean nituen lehen testuak: *O retorno*, *O porqué* (horren izenburua aldatu zuen; orain, *Fornarinari buruzko poema*), *Herba de cego*, *Castro laboreriro*, *Enterro campesino*, *Manifesto* (lehen paragra-

foak baino ez zituen oraindik testuak). Aipatzen ditut aipatu, kritika genetikoaren mesedetan, aldaketa asko gertatu baitziren idazketa prozesuan.

Izenburuak ez ditut ongi gordetzen buruan, baina oso presente ditut lehen sentipenak. Lehen asmoa: ez nuen poema bat baino gehiago itzuliko egunean. Bakarra. Baina, lehen eguna nuenez, bi itzuli nahi izan nituen. Bulegotik etxeko sukaldera jaitsi nintzenez, zuri eta zurbil nuen aurpegia. Sentitu nuen galdua nuela nekien galego apurra, galdua gaztelania, eta, okerragoa dena, sentitu nuen galdua nuela betiko euskara, galduak nituela nire hizkuntzak eta nire hizkerak. Ez da sentipen noblea itzultzaile batentzat, hitzez beteriko pertsona izan beharrez hutsez beteriko gizakia dela sentitzea. Okerra.

Emazteak, gogoan dut, «Hileta batera joateko itxura duzu» esan zidan. Eta haraxe nin-doan, berak jakin gabe. Nire hitzen hiletara joateko prest nengoen: hitzak hilak nituen. Etsipen puntu bat izan zen, dudarik gabe. Nik orduan ez nekien, baina egoera berri batean sartzeko nintzen: hizkuntza berria ikasten, Manuel Rivasen poesiaren hizkuntza, eta orduan ezjakin nintzen, poesiaren hizkuntza propioa, bere sentipenak eta mundua adierazteko. Eta oraindik ezagutzen ez nuen hizkera zen hura.

Galegotik zuzenean itzuli nituen lehen poemak, on-line diren hiztegiak profitatuz. Eta agian horrek ez zuen lehen mementoan lagundu. Uneoro nituen zalantzak, eta erremedio-rik gabe sortzen zitzaizkidan ezbaiak. Batzuk egilearekin kontsultatu nituen; hari galdetu, eta erantzunaren zain geratzen nintzen. Baina, berez urduria izanik, ez nituen ongi eraman haren erantzunen atzerapenak, eta beldur nintzen ez ote nuen irakurketa okerra egin batean baino gehiagotan.

Hitz asko ez nituen hiztegietan aurkitu: *visgo, empamunada, uz, arfantar, laio, ñire, infinda, laio, espreguizar, lavedo, refacho, bildueira*... Erantzuna abenduaren 10ean heldu zitzaidan. Bazirudien egilea oraindik testuak lantzen eta idazten ari zela, *work in progress* etengabe batean.

Hiztegi kontuak ez ziren larrienak. Banekien goiz ala berandu hitzen esanahi zuzenak helduko zirela. Gainera, irtenbide eta laguntza ederra izan nuen gure fakultateko galegoko irakurlearengana jo nuenean laguntza eske (nola ez zitzaidan lehenago otu?). Isabel Mociñoñok beti izango du nire esker onaren adierazpena, eman zidan laguntzagatik. Ezagutzen ez nituen hitz haiek ez omen ziren oso erabiliak. Eta bulegoan ikusi nuen hiztegi galego berrienaren orrialdeetan barrera hitz ezezagun haien esanahiaren bila hasi nintzen. Baina, hara non, garrantzirik gabe, lana argitu zidan esaldi samur bat esan zuen: «Horrela hitz egiten zuen nire amonak». Itzulpena beste era batez ikusi nuen harrezkero. Idiolekto bi zirela testuan ikusi nuen bat-batean; bata zaharra, landetako poemetan, eta beste bat hurbilagoa, gaur eguneko gaiak tratatzerakoan. Ordutik aurrera, euskal hiztegi bi erabili nituen, bata 50eko hamarkadako —Muxikarena—, *Isabel Mociñoñoren amonaren hiztegirako*, eta modernoa bestea, gai modernoetan oinarrituriko poemak itzultzeko. Isabel Mociñoñoren amonari esker sortu dira itzulpenean agertu ziren hiztegi zehaztapen eta matizak.

Hiztegitik erritmora

Egun haietan, itzulpenarekin batera, eguneroko bat idatzi nuen, nire aurrerapenen berri ematen zuena. Idatzi horren arabera, lehen poemak abenduaren hasieran bukatu nituen. Poemarik laburren multzoa zen. Bi hilabete eta erdi poema labur horiek itzultzeko. Denbora luzea iruditu zitzaidan, eta fruituak, eskastxoak. Poema batzuk itzuliak ziren, baina, batez ere poema luzeetan, Manuel Rivasek aldaketa ugari sartu zituen, eta moldaketak moldaketaren gainean etorri ziren garai hartan. Batez ere poema luzeetan (*Monte do faro*, *Meu amor puso unha bomba*, *May day*), bazirudien etengabeko moldaketa batean ari zela idazlea.

Itzultzen hasi nintzenean, kezka nagusi bi izan nituen: irakurketa zuzena eta poemaren erritmoa euskaraz ere mantentzeko ahalegina egitea. Erritmoaren gakoa ez da samurra euskaraz. Maite ditudan poetek, batez ere Juan Mari Lekuonak, erritmoa hitzen silaba kopuruan oinarritu dute, eta silaben kopurua konbinatuz sortu dute erritmoaren konstelazioa beren poesian. Ez nuen galegoaren erritmoa errepikatu nahi; euskarazkoa sortu nahi nuen, euskaraz irakurtzekoa zen poesiarantz egokitu, eta poemaren barne egiturak eskaturiko musika sortu.

Itzuli nituen lehen poemaren zirriborroetan, han ditut nik, nire koadernoetan, silaba kopurua hitz bakoitzaren gainean apuntaturik; han ditut silaba zenbakiak jarririk, taldeak eginez, behin eta berriro begiratuz bertso lerroan zenbakiak parekatzen ziren ala ez; han dira zenbakiak (4/4/3/3) apuntaturik, errepikapena, erritmoa sortu nuen ala ez ikusteko asmoz. Han ditut paralelismoen agerbideak, kontraste jokoaren kontzientzia eman zidaten zenbakien dantza.

Euskarazko poesian garrantzi handikoa den aliterazioa ere kontu handiz zaindu nuen. Horrela, ahalegin handirik gabe itzuli nuen *Alalá* poema, euskal poesia tradizionalan antzeko formulak usu erabili ohi direlako, eta haiek erabiliz erraz lortzen delako hizkuntza bien arteko paralelotasuna:

Eu de noite iría de noite,
no medio do temporal.
Ir de día á luz do día
dáme medo, miña nai.

Gaez noa, gaez,
ekaitz erdian.
Beldur bainaiz joateko, ama,
egun argiaren argitan.

Abenduaren 15erako, Manuel Rivasek ikusi zuen itzulpenaren lehen bertsioa, eta, nire haridurarako, gehien maite duen poema itzulia *Espiritual* poema da. Ezagutzen nuen anekdota, zeren Bilbon urrian eman zuen hitzaldian kontatu baitzuen Conxoko eroaren historia, nola eroak Espiritu Santuaren itxura egin zuen mezaren erdian. Eta, berak ohi duen bezala, entusiasmo handiz idatzi zidan:

«Qué maravilla, Jon!
No entiendo, pero puedo oír los poemas en euskera.
Pio pioka:
Neu naiz, neu naiz».

Badakit euskaraz *pio-pioka* horrek ez duela itxura onik; inozoa ematen du, eta horregatik indartu nuen, errepikapenez, bukaera. Esaldi horretan, galegoz erabili zuen *eu* ('ni') hitzaren eufonia mantendu nahi izan nuen *neu* hitzaren bidez, eta, era berean, hots hitza sortu nahi nuen, txori baten kantua adierazteko, usoarena ez bazen beste txori agian ez hain fin baten kantua sortzeko. Nire harridurarako, Manuel Rivasek euskaraz asko maite duen itzulpena da. Mariñaneko pazoan 2009ko ekainean bildu ginenean Manuel Rivas, Kirmen Uribe eta hirurok, Rivasek *Izpirituala* irakurri nahi izan zuen publikoaren aurrean, euskaraz irakurri ere, gure artean euskaraz ongi irakurtzen trebatu ondoren. Irakurriz batera, itzulpenean ziren joko eufoniko guztiez zerbait esan zuen Rivasek, beti bezala bere begiak asko zabalduz, pozaren seinale.

Hizkuntza erromaniko batetik euskarara

Erritmoa eta aliterazioa aipatu ondoren, hizkuntza erromaniko batetik hizkuntza aurreindoeuropar batera itzultzeko orduan sortzen diren arazoak aipatuko ditugu. Izan ere, egitura gramatikalak oso desberdinak dira. Une zaila da emakumeen generoa aipatzerakoan euskaraz zer egin behar den erabakitzea. *A panadeira de Ingres* poemak zailtasunak sortzen dizkio itzultzaileari. Euskaraz, edo hitz pareak erabili ohi ditugu (*zaldial behorra*), edo *jaunal andrea* erako moduak erabili behar ditugu, eta, kasu horretan, silaba kopurua handitu egiten dugu. *Señora panadera* euskaratzeko, *Okin anderea* proposatu nuen, generoa giltza baita poemaren gune semantikoa agertzeko, baina, horrela jokatzuz, forma luzatu egiten dugu. Kontu handiz erabili behar nuen postposizioa ere. Hitz oso luzeak erabiltzeko joera dugu, eta hitz luzeak beste hitz luze batzuk sartuz orekatu ditzakegu. Uste dut, adibidez, *Monte do faro* poemaren bukaerak izan dezakeela beste ordezko hobeagoa:

Zure negarrarekin urrumaka den idi erraldoia,
bere begitxoek kliskadura fierra?

Negarrarekin hitza luzeegia da (5 silaba). Hori estaltzeko otu zitzaidan joera bakarra *rr* soinuaren aliterazioa izan zen —gogorregia, agian—, bai eta azken bertsoaren joko erritmikoa ere (2/4/4/2 silaba jokoa). Dena dela, uste dut ez dela nahikoa.

Hitz jokoak beti dira problema. Zer bonba klase da *Meu amor* poeman hutsunean jartzen den hori? Fisikoa, ala eztanda egiten duena? Hutsune bonbak fisikakoak dira, baina hutsunean jarri ohi dira; beraz, arazo bat nuen. Nire emazteak lan egiten duen ikastetxeko Fisika irakasleak irakatsi zidan nola itzuli hitz joko hori. Hari esker geratu da poema geratu den moduan.

Itsasoko hiztegia

Poema bilduma honetan, itsasoko hiztegiak helburu metaforiko zehatza eta aberatsa du. Askotan ageri da, eta ez da erraza adierazten. Niretzat, erronka ederra izan zen, eta oso ondo pasatu nuen hura itzuliz. Eta zenbait momentu irriagarri ere sortu zituen egoerak. Eskerrak gai honetan

ere laguntza izan nuela. Lehena Eneko Barrutiarena izan zen. Tesia egina du itsasoko hizkeraz, eta berak lagundu zidan lehen estropadetan. *Ceñida, abarloado, a flote...* Kasu batzuetan, berak ere zalantzak zituen.

Eta, orduan, beti dut nire arrebaren hizkera nire ondoan; beti dut harengan konfiantza. Bego Kortazarrek bilatu zuen *andar a renca* euskaratzeko modua. Euskaraz ere antzera esaten dela jakin nuen: *arrenkeran*. Ez dago hiztegieta, eta, norbaitek batuko balu, Bego Kortazarren ekarpena dela jarri beharko luke ondoan.

Gertaerarik politenetakoa gertatu zitzaidan *Noroeste cuarta Oeste* itzultzeko orduan. Nire arrebak bat-batean asmatu zuen: *Iparsartaldera cuarta sartaldera*. Baina zaila iruditu zitzaidan, eta nire koinatuari galdetu nion; azken batean, marinela da bera. Eta hark ere zalantzarik gabe esan zidan: *Noroesti*. Bai, horixe zen norabidea, baina ez hitza. Alferrik azaldu nion ez zela aproposa: ez baitzituena originalera hurbiltzeko behar nituen silabak. Alferrikakoa izan zen hitzaren eta gauzaren arteko desberdintasuna azaltzea. Bazen gauza, baina ez behar nuen hitza.

Baina tristenetarikoa gertatu zen arratsalde oso bat pasatu nuenean bost bertso euskarazten. *May day* poemakoak ziren, eta honela esan zuen poetak:

Se ti a carón	Zu haizeraka,
Acaroados	Gu alboz albo
A flote	Azalean
Nese tremente adeus	Baturik mantendu ginen
Que nos retivo unidos	Agur dardarati horretan

Arratsalde osoa! Eta bost lerro besterik ez! Lorcaren poeman bezala, arratsaldeko bost bertso puntuan ziren. Baina alferrik, orduan ere. Hurrengo aldaketan, ez ziren agertzen; kendu egin zituen poetak. Ni hain pozik paralelotasunarekin, pozik erritmo, mezu, han hain justu jarritako hitzarekin. Hurrengoan, berriz agertu ziren, eta ni, ametsetan bezala. Berrito jarri horrenbeste atsegin nituen bertsoak, beste batzuk aldatu, etengabeko lanean.

Abenduan eta urtarrilean, aldaketa ugari etorri ziren poemetan. Bronkitis gogor batek etxean utzi ninduen, eta, lanera joan gabe, astia izan nuen itzulpena fintzeko. Urtarrilaren bukaerarako, amaituta zegoen. Baina, une horretan, Manuel Rivas aldaketak egiten hasi zen. Zalantza handiak eta aldaketa ugari. Liburua bukatzerako, amesgaiztoak nituen: eta egileak onarturiko azken bertsoaren orde z nik aurretiko bat jarri izan banu? Zer? Ez dakit horrelakorik gertatu den ere. Ez nuen ikusi nahi izan. Ez dut berriro ikusi nahi izan.

Izenburua

Azken idazketaren garaian, konprobatu eta afinatu egin nuen. Testua zatika heldu zitzaidan; Manuel Rivasek behin eta berriro idatzi eta zuzentzen zuen; hasi ginenean, liburua ez zegoen bukatua, eta zatika heldu zen; ondu, egituratu eta gorpuztu egin zen, azarotik urtarrilera. Gu-

rago izango nukeen hasieran osorik izan banu, batez ere hitz berak era desberdinez ez emateko; beraz, azken lana *visgoren* itzulpena behin eta berriro bera zela ikustea izan zen, eta *abanearek* ere aldaketarik ez zuela begiratzea.

Azken irakurketan, baina, adiskide batek esan izan *Elurraren desagerpena* izenburua gogorra zela. Beste esaldi batzuk asmatu genituen. Itzulpen prozesuaren hasieran, pentsatu nuen *Elurraren urtzea* izenburua egokia litzatekeela. Une hartan, alde batera utzi nuen. Seguru nengoen beste hizkuntzetan agerian geratuko zen paralelotasuna apurtuko zukeela: *A desaparición/La desaparición/La desaparició*. Berriz ere, euskara zaila eta desberdina! Ez zitzaidan gustuko hain desberdin agertzea. Baina hantxe zegoen oroigarria, oihartzuna bezala, behin eta berriro buruan errepikatuz leloa. Baina adiskideak oso gustukoa zuen, eta nik ere atsegin nituen aliterazioa eta *ur* silabaren errepikapena.

Manuel Rivasi idatzi nion, aholku eske. Eta haren erantzuna atoa etorri zen: «Me gusta! Se cambia! Es un título *Elurraren urtzea* en el que se escucha la nieve. A ver si por aquí el domingo oímos cantar los mirlos».

Otsailaren 26an idatzi zidan, eta martxoaren 1ean, igandean, Galiziako Parlamenturako hauteskundeak zituzten. Igande hartan, zozok ez zuten kantatu.

Baina, igandean kantatu ez arren, badakit itzulpen hori askatasun ariketa bat izan dela. Liburu bat lau hizkuntzatan, hizkuntzen anaitasuna askatasunaren nahia besarkatuz.

Badakit itzulpen bidean esperientzia berezia bizi izan dudala. Liburuan bertan eman da esperientzia horren berri. Eta itzuli nuen unean jakin nuen non nengoen eta zein zen bidea.

Eu non sabía que había
tanta alegría nas bágoas
nin neve nas bidueiras
nin esperanza nas mágoas.

Liburua argitaratu zutenean, izenburua lau hizkuntzetan agertu zen azalean, eta euskarazkoa berdez eman zuten. Berdez: itxaropenaren kolorea, zozoen kantuaeren kolorea.

Manuel Rivasen poesian kantatu dute zozok Galizian.

Resumen

El objetivo de este artículo reside en la plasmación de la experiencia vivida en el proceso de traducción del libro *A desaparición da neve* de Manuel Rivas. Se describe un proceso experiencial en el que muy de vez en cuando se examinan problemas de traducción de lenguas romances a la lengua vasca.

Résumé

Dans cet article, l'auteur raconte l'expérience qu'il a vécue en traduisant le recueil de poèmes de Manuel Rivas *A desaparición da neve*. Il ne s'agit pas d'un travail théorique, mais d'un récit des obstacles rencontrés et des joies ressenties tout au long de ce processus de traduction en basque d'un ouvrage écrit dans une langue romane, comme le galicien, où l'auteur signale de temps en temps les difficultés d'un tel exercice.

Abstract

This article recounts the author's experience of translating the book *A desaparición da neve* [*The Disappearance of Snow*] by Manuel Rivas. It is a roadmap of the obstacles and joys involved in the translation process, together with an occasional examination of the problems of translating from Romance languages into the Basque language.